

## HIRUGARREN KAPITULUA

Antiaju Berde eta bere laguntzaileak. Babel  
Dorrearen kontuak. La Vaque qui Rit izeneko  
behiak salbatu egiten nau, eta gerra bukatu  
berriaren albiste ematen dit gero.

1. Konta ezazu kapitulu honetako pasarte umoretsu bat.
2. Nor da *Antiaju Berde*? Nortzuk dira *hortzaundiak*? Zertan ari dira?
3. Nor da *La Vaque qui Rit*? Zelakoa da? Zelakoa da bere barruko ahotsa?
4. Zer da *behi makala* izatea edo ez izatea?
5. Zeintzuk dira Balantzategiko gauza arraroak?
6. Zer diote gerrari buruz? Zein gerra da? Noiztik noiz arte iraun zuen?

---

### Gogoeta

1. Kapitulu honen hasieran kontatzen da zelan jabetu zen Mo behia heriotzaz, aurreneko aldiz bere bizitzan. Noiz jabetu zinen zu? Zelako esperientzia izan duzu? Zer pentsarazi dizu?

---

### Hiztegia. Eman ondoko hitz hauen esanahia:

Uxatu, zendu, xingle, txusta, abaranta, ihar, lanturuka, pinportu, kikildu, zarpil, erreteila, juzku, amore eman, txinta

**Antiaju Berde, Eztenas, Hortzaundiak, La Vaque qui Rit... gaitzizenak dira.** Idatz itzazu zeuk ezagutzen dituzun beste gaitzizen batzuk: